

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako unibertsitateak Gobernuarekin lankidetzan ariko dira enpresa-ikerketako proiektuak hautemateko

*Ayerdi lehendakariordeak NUPeko errektore Alfonso Carlosena-rekin eta Nafarroako Unibertsitateko errektore Alfonso Sanchez-Tabeneri-rekin hitzarmenak sinatu ditu*

Asteartea, 2016.eko uztailak 26

Nafarroako Gobernuak NUPen eta Nafarroako Unibertsitatearen laguntza jasoko du enpresa nafarrek egindako ikerketa-proiektuak hautematen eta ebaluatzen, Foru Gobernuak dituen laguntza publikoen programetan sar daitezkeenak; programa horiek ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea dute xede.



Ezkerretik eskuinera: NUPeko errektore Alfonso Carlosena, Ayerdi lehendakariordea eta Nafarroako Unibertsitateko errektore Alfonso Sánchez-Tabernero.

Helburu horrekin, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik bi unibertsitateetako errektore Alfonso Carlosena-rekin eta Alfonso Sánchez-Tabernero-rekin, hurrenez hurren, lankidetzan-hitzarmenak sinatu ditu berriki. Agiriaren arabera, bi zentroek proiektuak ebaluatzeko garaian parte hartuko duten langileak izendatuko dituzte eta, horretarako, Garapen Ekonomikorako Departamentuak jadanik finkatutako metodologia egokituko da. Lau urterako akordioa izango da.

Orain arte, ebaluazio hori Nafarroako Gobernuak egin izan du bertako langileen bidez, nahiz eta gaur egun egokia iruditzen zaion ebaluaziorako esparrua unibertsitateetara zabaltzea.